



# APYMA KOMUNIKAZIOA

## IKASLEEN GURASO ELKARTEA

21zkoa 2010eko ekaina

### Zorionak eta eskerrik asko!

Lehendabizi ikastetxeko zuzendaritza zoriondu nahi genuke, irakasleak, ikastetxean lan egiten duten pertsona guztiak, guraso eta ikasleak baita ere, kurso osoan zehar egindako lanagatik. Ikastetxeari ere eskertu nahi diogu, gure eskaerak entzun izana eta guk proposatutako proiektuetan parte hartzeagatik. Azpimarratu nahi dugu bai zuzendaritza bai batzordeko arlo desberdinetan lan egin duten pertsona guztiak Apymarekin izan duten jarrera,.

Datorren urterako gurekin lan egiten duten pertsonak protagonistak bihurtzea izango da Apymaren erronka,. Izan ere, gure seme alaben heziketa hobetzeko lan egiten dutenek sari hori merezi dute. Datorren kursoan abentura honetan guraso gehiago parte hartuko dutela bihotzez espero dugu.

### Ingeleseko proiektua

Apymako ingelesa batzordetik, nabarmendu nahi dugu, ikastetxeak arlo honetan eman duen pauso garrantzitsua: Datorren kurtsotik, 2010/2011, eta 4. mailako Lehen hezkuntzatik aurrera, ikasgai-zerrendan dauden gaia batzuk, ingelesez irakatsiko dira. **Well Done!!**

Honela, beste gaietan eta kurtsuetan ekimen hau luzatzea urtero aztertuko da. Halaber, ikastetxeak eta Apymak elkar lanean hari dira, anglosaxoi herrietako jatorria duten laguntzaileak ikastetxera ekartzeko.

Gure ustez, proiektu hau gure seme alaben ingeleseko heziketan arrakasta handia izango duela. Jadanik, gai honi buruz interesa duten gurasoekin bilerak egin ditugu, ikastetxeari lana errazteko helburuarekin.

Informazio gehiago jaso nahi duzuenok edota gurekin lan egin nahi dutenentzat, Apymako helbidera idatzi dezakezue:

[apyma-sanignacio@hotmail.es](mailto:apyma-sanignacio@hotmail.es)

### Euskarako proiektua

Apymatik landutako euskarako proiektu berezi bat ikastetxeari aurkeztu diogu. Proiektu hau, bai ekintzak bai jarduera desberdinak tartekatzen ditu, helburua, noski, euskararen erabilera bultzatzea izango da; euskara gehiago piztea da xede nagusia.

Proiektu honekin, ikasleak beraien artean komunikatzea eta beraien ideiak adieraztea gai izatea espero dugu. Ikastetxearekin bat hasi gera elkar lanean eta orain arte egindako lanaren itxuraz oso pozik gaude,

Informazio gehiago jaso nahi duzuenok edota gurekin lan egin nahi dutenentzat, Apymako helbidera idatzi dezakezue:

[apyma-sanignacio@hotmail.es](mailto:apyma-sanignacio@hotmail.es)

### Zinea

Orain arte zinearen proiektioaz arduratzen eta koordinatzen duen pertsona, 8 kurso jarraian egon dena, Carlos Ceballos hain zuen ere, datorren kurtsotik aurrera, 2010-2011 lan hau beste pertsona bat egitea gustatuko litzaioke. Orrialde hau aprobetxatu nahi du bere eskaera usteko eta honela interesa duen baten bat irakurri dezala.

Kontutan eduki behar dugu, proiektio hauek, gurasoek egiten duten lanari esker burutzen direla. Guraso hauek bere borondatez, hilabete behin, proiektioak antolatzen dituzte. Espero dugu beraien laguntzarekin jarraitzea. Bertan egiten diren zereginak oso ongi zehaztatuak daude beraz betebeharrak hau hartuko duenari oso erraz izango litzateke dena esplikatzea, hala, lehenengo urtean (irailean hasiko da) Carlosen laguntzarekin kontatuko luke. Interesa dutenak helbide honetara idatzi dezakete: [cceballos@grupocei.net](mailto:cceballos@grupocei.net) edo 636012976 telefonora deitu. Norbaitek animatzea espero dugu izan ere Haur Hezkuntza eta Lehen hezkuntza dauden umeei igandetan proiektio hauetaz gozatzeko jarraitzea desiratzen dugu.

### Familiatzako laguntzak

Kurso honetan, ikastetxeak sortzen dituen gastuak ordaintzeko, behar zuten familiei laguntzeko 3000 euroko sail berezi bat onartu genuen,.

Jakinarazten dizuegu, zortzi ikasle izan direla diru laguntza hau jasotzen dutenak.

### Apymaren festa

Pasadan maiatzak 30ean urteko festa ospatu genuen. Gure seme-alabekin Quardetan ibiltzea edota puzgarrietan disfrutatzen ikustea, jendearekin egindako futbolinean jolastea, benetan zoragarria izan zen, Gainera, beste gurasoekin hitz egitea edota bere garaian ikastetxean ikasi zuten gurasoak( orain bere seme-alabak ikasten dute) berriro ikustea oso ondo egon zen.